# IRABAZI ITURRIAK

Edukiko ditugun irabazi iturriak udaletxeak gure zerbitzua kontratatzen duen heinean eskuratuko ditugu. Bi diru sarrera mota edukiko ditugu, hasierako eta hilabetekoa. Hasierakoa, izango da gure proiektuaren hasieran irabaziko duguna, aldiz, hilabetekoa, hilabetero irabaziko duguna, hau hasierakoa baina handiagoak izango dira.




Hasteko, hasiera batean inbertitu beharko dugun diru kantitatea 7657,9€koa izango da, diru kopuru hau leku desberdinetatik lortuko dugu. Bakoitzak 1.500€ jarriko ditugunez hasieran horrekin 4.500€ lortuko ditugu. Guk jarri behar dugun diruaz gain bankuari mailegu bat eskatuko diogu, hau 3.300€takoa izango da, eta 5 urtetan zehar ordaindu beharko ditugu interesak, zehazki hilabetean 58,86€. Behin diru kantitate hau lortuta zertxobait soberan geratuko zaigu beraz diru hori gorde eta aurrerago zerbait erostea behar badugu erabiliko dugu. Horrez gain, gure zerbitzua hobetzeko ere erabiliko dugu. Beraz bi hauek izango dira hasieran erabiliko ditugun diru sarrerak

Gure hilabeteko irabazi iturri bakarrak udaletxeak izango dira, hauentzat besterik ez dugulako lana egingo. Gure ideia goierri mailako herrietan lan egitea denez, 21 herritan egingo genuke lana, herriak hurrengo hauek dira:

- Segura
- Zerain
- Ordizia
- Beasain
- Gabiria
- Mutiloa
- Ormaiztegi
- Itsasondo
- Arama
- Ezkio-Itsaso
- Zumarraga
- Lazkao
- Altzaga
- Idiazabal
- Gainza
- Zaldibia
- Olaberria
- Ataun
- Zegama
- Urretxu
- Legazpi

Gutako bakoitzak orduko 8,33 € irabaziko lituzke, beraz hilero 700€ irabaziko lituzke bakoitzak. Udaletxe bakoitzak 33,33€ gastatuko lituzke gure soldatari dagokionez, baina horrez gain, 313€ ordaindu beharko liztuzkete horrela gure materiala erosteko, gure langileari ordaindu ahal izateko, publizitatea egiteko, umeentzat opariak erosteko, kamisetak egiteko, gure garraioa ahalbidetzeko eta materiala gorde ahal izateko uggasa enpresari ordaintzeko gai izango ginateke. Denera 346,33€ gastatu beharko lituzkete hilabetean. Hau horrela da, gure zerbitzua hilean behin eskeiniko dugulako herri bakoitzean beraz guk eguneko ordainduko dugu.